Ibilbidea

Bretainiara joan nintzen garai batez, eta errango nuke hor gertatu zela bihurgune bat. Han ere kantatzen hasi nintzen. Antzerki talde baten lehen parteak egiten nituen, baina folk akustikoan batez ere. Errebelazio bezalako zerbait gertatu zitzaidan momentu hartan.
Euskal Herrirat itzultzean, rock eszenatokia erabat utzi eta folk munduan murgiltzen hasi nintzen. *Elaudi* taldea sortu genuen eta hamar urtez ibili ginen. Gero haustura handi bat izan zen. Dena utzi nuen. Sei urteko pausa luze bat egin nuen musikagintzatik urrun. Orain berriz itzuli naiz eta beti bezala proiektu ezberdinetan nabil ber denboran. « *Anitz ari eta gutxi ageri* » batek dioen bezala.

Aurten, bidea bukatu dute ari nintzen talde ezberdinek. *BBAX* taldea bukatu da besteak beste. Izan ere, Covid krisiak bururaino eraman du sistema bat, mugaraino, eta guk ere muga horretan gelditu dugu proiektua. Orain beste polifonia proiektu bat abiatu dugu sei kantariren artean; hemendik *Marie* eta ni, Xiberotik *Claudine Harancet* eta *Kattin Inchauspe*, Hernaniko *Ander Barrenetxe*a eta Bilbotik *Ibon Errege*. Orduan erran dezakegu euskal polifonia talde bat osatzen dugula, *A!* izenez abiatzen duguna. Momentu honetan ari gara soinua atzematen taldearentzat. Izan ere, polifonian inportantea da taldearen soinua topatzea. Gero hasiko gara emanaldiak eskaintzen.

Ondoan, Astafforten egon naiz duela gutti, *Francis Cabrel* kantariak antolatzen dituen artisten formakuntza saioetan, kantuen idazten ikasteko. Esperientzia biziki polita izan da. Izan ere, Okzitandarrak, Korsikarrak eta nire iritziz, biziki musikari finak eta nire gustukoak ezagutu ditut bertan. Beraz Okzitaniako artista batekin proiektu bat muntatzea erabaki dugu, formatu sinple batean; hark pianoa, gitarra eta akordeoia jotzen ditu. Beraz musikari osoa da, eta elkarrekin ariko gara.

Gitarra eskuan, ibili bizian

Bai izan daiteke, agian iraganeko garai batean irudikatuz, oraina baino gehiago. Gaur, nire harpean zaude. Denbora gehiena hemen pasatzen dut, bakarrik, mundu bakartu batean. Gutxiago ateratzen naiz, nahiz eta harremanak ditudan oraindik kanpoarekin. Baina egia da garai batez ibili naizela gitarra bizkarrean munduan gaindi, Europan, Quebecen, Grezian. Akropolia azpian, etxeratzeko dirurik ez nuela, *Izarren hautsa* kantatu nuen behin, eta horrela lortu nuen txartela ordaintzea.
Eta gitarra hor da beti nire bizian. Orain dela 30 urte hasi nintzen eta orain ari naiz berriz instrumentua deskubritzen. Punk garaian hazi ginen, nahiz eta ni hard rock zale naizen gehiago. Orduan musikan hasi nintzenean, punk eta hard rock taldeetan jotzen nuen. Garaian, musikan deus jakin gabe hasi nintzen. Bi nota egin eta kontzertu bat antolatzen genuen belaunaldiko beste askok bezala. Oraingo gazteak ikusten ditudalarik, iruditzen zait gehienak jantziagoak direla. Asko musika eskolatik pasatzen dira lehenik, eta gero talde bat sortzen dute. Beraz ez nuen gitarra jotzen ikasi, desbideratu nuen tresna nire erara. Geroztik, gitarra jole handiekin musika jotzeko aukera izan dut proiektu ezberdinetan. Ohartu naiz rockero hutsa nintzela eta *power chords* deitzen diren horiez aparte, fitsik ez nekiela. Beraz badut halako konplexu bat gitarrarekiko eta orain ari naiz hori lantzen. Ez naiz inoiz gitarrista handia izanen, baina gitarra beti hor da.

Formatu desberdinetan kantuz ari

Anitzetan eskatu didate bakarka aritzea eta anitzetan ere, zerbait sinple proposatzea, oihu gehiegirik gabe edo... Hauei ez diet kasurik egiten eta nik nahi dudana egiten dut. Taldearena maite dut gehiago partekatzen duzulako. Bestearen ekarpena duzu eta hori interesatzen zait. Muntatzen ari garen polifonia talde berrian adibidez, badugu xiberotar garbia alde batetik, musika inprobisatuen munduan dabilen Bilboko bat eta Hernaniko sagardotegi bateko jabea. Orduan bada halako nahasketa biziki interesgarria, ikustea bakoitzak zer ekartzen duen eta zer partekatzen dugun. Bakarlari gisa egiten duzun lan batean ez da berdin. Adibidez, bakarlari gisa egin dudan eHe diskoan, Mathieu Harambourrekin batera, zaila izan zait nire burua kokatzea. Disko hori nirea dela erraten dut, nik idatzitakoa delako, baina egia da Mathieuk anitz parte hartu duela alor ezberdinetan. Orduan diskoa nirea da, baina ez da arras horrela, zeren bien artean egina da.

Hor ohartu naiz halako proiektu batean, argi eduki behar duzula zer nahi duzun, behar duzula burua izan eta nik hori ez dakit egiten. Konturatu naiz proiektua ez dudala kudeatu, ez dakidala talde bat kudeatzen eta nik nahiago dudala besteekin batera aritzea. Horregatik nahiago dut talde lana. Gero, bakarlari gisa disko polit bat ateratzea egun batez ez dut baztertzen. Lehenik gitarra ongi landu behar dut eta gero ikusiko.

Musika arte desberdinekin uztartzea

Anitz lan egin dut Koldo Amestoy kontalariarekin hitzak eta musika uztartzen zituen proiektu batean. Beti erraten dut Koldo biziki musikaria dela bere ariketan. Erraztasun handiz integratzen ditu hitzak musika doinuetan. Badu hitzaren musikatzeko dohain bat. Itxaro Bordarekin ere poesia errezitalak eskaini ditugu. Zirkuan ere ibilitakoa naiz eta Uztarorekin ere performance moduko kolaborazioak egin ditut. Uztarorekin gainera bideoklipa atera dugu diskoarentzat. Hor aldiz, kantu bat hautatu eta beraien proposamena egin dute. Ez zen inongo gomendio edo baldintza berezirik nire aldetik. Libre utzi ditut erabat. Eta emaitza ikusi dudanean, zinez liluratua egon naiz. Eskertu ditut, zeren eta lan ederra egin dute.